


Ariketa hauek Ikasbileko 2073608 jardueran aurkituko dituzu

## 1- Entzun aurretik

### 1.1 Arrantzaleen lan-egoera



Lanbideak eta lanbideak daude, batzuk samurragoak, besteak berriz, latzagoak. Ogibide gogorrenetako bat ordea, arrantzaleena dela esan ohi da. Zer dakizu lanbide horri buruz? Bildu hainbat atali buruzko informazioa eta eman horren berri ikasgelan.

**Atalak: Lan baldintzak, ordainketa sistema, lan istripuak, biomasaren arazoa...**

ⓘ Nahi izanez gero, informazioa [artikulu honetan](#) ere aurki dezakezu



Adb. Hilabeteak igarotzen dituzte etxetik kanpo, senideengandik urruti eta egoera neketsuetan lan egiten.

- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_

### 1.2 Ondarroako portua



Jonek arrantza-portu bateko irudi bila joan da Ondarroara. Ikaskidearekin elkartu eta erreparatu bertako irudiei. Zer izango ote den Joni gehien eta gutxien gustatuko zaiona? Asmatzen saiatu. Ondoren entzun gainerako ikaskideek zer dioten.

Entzun elkarrizketa Jonek esandakoa ezagutzeko. Asmatu al duzue?

Gustatuko zaio	Ez zaio gustatuko



## 2- Entzun bitartean

### 2.1 Egia ala gezurra?




[Audio-pasartea entzundakoan, adierazi baieztapen hauek egia ala gezurra diren. Ondoren alderatu erantzunak ondoko ikaskidearekin.](#)




- Arrantza-ontzi batean filmaketa egitera joan dira Ondarroara
- Bermeoko portua gehiago gustatzen zitzairen, baina irudian Calatravaren zubia agertu behar zuen derrigorrez
- Joneren ustez Ondarroa ez den beste portu politagoak bazeuden aukeran, baina Jonek postaletarako egokiak dira horiek, ez arrantza portua irudikatzen.
- Ekoiztetxean Jonekin lan egiten duen Arantxak susmoak piztu ditu Jonerengan eta jeloskor jarri da
- Jonek oso neska polita dela esan diolako
- Arantxak Ondarroan dauden hegazti exotikoari buruzko erreportajea egiteko ideia bikaina izan omen du
- Harritzekoa bada ere, Jonek nahiago omen du Jone marmartia Arantxa ederra baino



## 2.2 Ondarruko gorria eta paradisuko txoriak





   Arantxak Ondarruko gorria eta paradisuko txoriei buruz egin omen dio Joni. Zer dela eta? Azaldu labur-labur ideia horri buruz ulertu duzuna ikaskideari. Ea biok ados zaudeten.




## 3- Entzun ondoren



### 3.1 Arrantzaleen lanbideaz

   Talde txikitan bildu eta partekatu  ariketan arrantzaleei buruz bildu duzuen informazioa. Ikaskideen azalpena entzuten duzun bitartean, jaso zuri berriak edo interesgarriak egin zaizkizun ideiak.

### 3.2. Dokumentala prestatzen

 Nola imajinatzen duzu Jonek egin nahi duen arrantzari buruzko dokumentala? Taldekideekin batera, prestatu dokumentalaren nondik-norakoak eta osatu laburpena.

**Gai nagusia:** *Zer egiten du arrantzaleak itsasoan ez dagoenean?*

**Talde txikitan landu beharrekoa:** Izenburua, azpigiak, dokumentalaren ikuspuntua, zein irudi eta eszena erakutsi nahi dituzuen, noren testigantzak bildu (...)



☺ Adibide hauek prestaketarako lagungarriak izan daitezke

**Zerbait proposatzeko:**

- zergatik ez dugu...-t(z)en?
- hori baino lehen, zera egingo nuke nik....
- .... egingo bagenu, zer iruditzen?
- ...egin genezake

**Konparazioak egiteko:**

- Lortu nahi dugunerako, irudi hau beste hori baino egokiagoa da
- Ahalik eta elkarrizketa gehien edukitzea komeni zaigu
- Ez da film bat bezain luzea izan behar

**Adostasuna / desadostasuna azaltzeko:**

- konforme, ados nago, bat nator zurekin
- ondo iruditzen zait esan duzuna,
- Ez zait iruditzen horrela izan behar duenik

**Iritzia emateko:**

- (e)la... iruditzen zait
- Nire ustez/ iritziz...
- ... egingo nuke
- ez nintzateke arduratuko horretaz...
- Ez zait iruditzen ...-enik

**Talde handian:** Dokumentalaren laburpena edo nondik-norakoak azaldu besteei. Adibideari erreparatu zuenarentzat ideia har dezazuen



**KARDALA**

Arrantzaleen emakumeen indarra erakusten duen dokumentala da. Kardala, itsasoak, olatuaren tontorra apurtzen hasita dagoela, honi ematen dion bultzada edo kemena da. Indar berbera behar izan dute arrantzaleen emakumeek urteetan zehar bizitzeari aurre egiteko. Hiru emakumeen bizitza kontakizunak agertzen dira dokumental honetan: Isaura, Garbiñe eta Maitane. Euren egunerokotasunari, bildurrei, ardurei eta bestelakoen gainean berba egiten dute, askotan hain ezaguna izan ez den errealitatea erakutsiz .

[www.Bizkaie.biz](http://www.Bizkaie.biz) (moldatua)